



**IRAKASKUNTZA  
GIDA**

**POLITIKA ZIENTZIA ETA  
KUDEAKETA PUBLIKOKO  
GRADUA**

<http://www.ehu.eus/gkz-csc>

## HELBURUAK

Egungo gizarteetan oso hedatuta dagoen ideia da **fenomeno eta gizarte harreman orotan politika dagoela**. Eta, egia esan, politika publikoek eragina dute gure bizitzan.

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduan, ikasleek **administrazio publikoaren eta erakunde politikoaren funtzionamendua** ikertuko dute, hauteskunde prozesuak aztertu eta horien inguruko prospekzioak egingo dituzte. Ideia politikoaren jatorriari eta sorrerari buruzko gogoeta egiteko espazio bat izango dute. Ikerketa soziopolitikoaren balioaz ohartuko dira eta ikerketa jardunerako beharrezkoa den ikuspegia osatzen duten tresnak ezagutuko dituzte. Horrez gain, hiritarren zerbitzura egongo diren politika publiko eraginkorrak diseinatzen ikasiko dute.

### TITULAZIO HONEK IKASLEARI GAITASUNA EMANGO DIO:

- Ingurune politikoaren fenomenoak behatzeko teoriak ulertzeko.
- Arazo politikoak eta gizartearen premiak aztertze.
- Administrazioaren plangintza eta kudeaketarako prozesuak ezartzeko.
- Erakunde eta sistema politikoaren egitura ulertzeko.
- Nazioarteko politika ulertzeko.
- Politika publikoak planifikatu eta ebaluatzeko.
- Komunikazio politikoko kanpainak diseinatze.
- Fenomeno politikoak eta erakundeetakoak aztertze adierazleak sortze.

## ELEANIZTASUNA

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduak oinarritzko eta nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazkoetako gehienak autonomia erkidegoko bi hizkuntzetan eskaintzen dira, **euskaraz eta gaztelaniaz**.

Gradu Amaierako Lana bi hizkuntza hauetako edozeinetan egin daiteke.

Gainera, Fakultateak parte hartzen du aktiboki UPV/EHUren Eleaniztasun Planean, eta ikasturtez ikasturte gero eta irakasgai gehiago eskaintzen ditu **hizkuntza ez ofiziale**tan. 2017-2018 ikasturterako, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduan ondorengo ingelesezko irakasgaiak eskaintzen ditugu:

- Basic Concepts of Political Science
- Foundations of Political Analysis
- International Relations
- Political Behavior
- Theories of the Communication



### BI GRADU ALDI BEREAN

Bi gradutako **ikasketak aldi berean** egiteko eskaria aurkeztu ahal du ikasleak lehen maila amaitu eta gero. Gure Ikastegiko ikasketa planen diseinua dela eta, bi urte gehiago eginda bigarren gradua amaitu daiteke **Gizarte Zientzien Arloan: Soziologiako Gradua**. Izan ere, bi gradu hauek 17 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai partekatzen dituzte.

Era berean, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduan gure Fakultatean eskaintzen diren Komunikazioaren Arloko hiru graduarekin ere partekatzen ditu irakasgaiak: 7 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduarekin, 7 derrigorrezko irakasgai gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Kazetaritzako Graduarekin, eta 6 derrigorrezko irakasgai gehi hautazko irakasgai 1 gehi euskarazko 2 hautazko irakasgai Publizitatea eta Harreman Publikoetako Graduarekin.

## IKASKETA-PLANA

### KREDITU BANAKETA ETA IKASTORDUAK GUZTIRA

Maila	Adarreko Oinarritzko Irakasgaiak	Beste adar batzuetako Oinarritzko Irakasgaiak	Nahitaezko Irakasgaiak	Hautazko Irakasgaiak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1	60					60
2			60			60
3			42	18		60
4			24	24	12	60
<b>GUZTIRA</b>	<b>60</b>		<b>126</b>	<b>42</b>	<b>12</b>	<b>240</b>

Ikasketa-planak guztira 240 kreditu ditu, hau da, 40 irakasgai.

Ikasturteak lauhileko bi ditu, bakoitzak 15 irakaskuntza-aste daukana. Irakasgai guztien ohiko azterketa irakaskuntza amaitu ostean egiten da (urtarrilean edo maiatzean), eta ezohiko azterketa ekainean egiten da.

## AIPAMENAK EDO IBILBIDEAK

Nahi izanez gero, ikasleak Graduak hiru aipamenetako bat ikas dezake. Aipamena lortzeko bere bost hautazko irakasgaiak gaitututa izan behar dira, hirugarren eta laugarren mailatan.

### ANALISI ETA AHOLKULARITZA POLITIKOA

Aldaketa eta Gatazka Politikoa

Analisi Politikoa eta Hauteskunde Prospektiba

Ekintza Politikoa eta Interes Taldeak

Komunikazio Politikoa

Marketin Politikoa

### ANALISI ETA KUDEAKETA PUBLIKOA

Aldaketa eta Berrikuntza Herri Administrazioetan

Esku-hartzeko Teknikak Administrazioan

Giza Baliabideen Kudeaketa

Politika eta Programa Publikoaren Ebaluazioa

Sektore Publikoaren Ekonomia

### NAZIOARTEKO HARREMANAK

Diplomazia eta Kanpo Politika

Gatazken Analisia eta Ebazpena

Gaur Egungo Nazioarteko Politika

Nazioarteko Antolakuntza

Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak



**Politika Zientziako Oinarrizko Kontzeptuak**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Funtsezko kontzeptuak, teoriak, tipologiak, ikuspegiak eta eztabaidak ulertzea. Gertaera politikoen interpretazioari bideak irekitzea.

**Edukiak:** Politikaren zientzia. Politika eta sistema politikoa. Estatuak: kontzeptua eta garapen historikoa. Estatuaren barneko botere politikoen banaketa. Estatuaz gaindiko erakundeak: Postestatalismoa? Sistema ez demokratikoak. Ordezkatze-demokrazia: Poliarkiak. Ordezkatze-demokrazien garapena.

**Konstituzioa eta Globalizazioa**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Zuzenbidea fenomeno historiko bezala eta gizarte arautzaile bezala ulertzea. Zuzenbideak arautzen dituen arlo publiko eta pribatuen arteko harremanak ikastea, Estatu liberalek Estatu sozialera. Harreman horretan Konstituzioak betetzen duen funtzioa ikastea.

**Edukiak:** Fenomeno juridikoa gertaera historiko eta sozial bezala. Zuzenbidea eta politika. Estatu formak. Zuzenbidea eta gizarte. Botere judiziala eta Epaitegi Konstituzionala. Modernitateko kategoria judizialak. Estatu sozialeko krisialdia. Globalizazioa eta zuzenbidea. Konstituzionalismoa eta transnacionalizazioa. Konstituzio kosmopolita eta munduko esfera publikoa.

**Ekonomia Politikoa**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Gaur egungo errealitatea aztertu eta ulertu ahal izateko gaitasunak eta oinarrizko ezagupenak lortzea. Etorkezunean lan munduan ikasleek aurre egin beharko dizkieten arazo sozioekonomikoen ulermenerako gaitasunak lortzea.

**Edukiak:** Ekonomia politikoa eta gizarte zientziak. Pentsamendu ekonomikoaren korrante nagusiak. Merkatuen funtzionamendua. Konkurrentziako merkatuaren mugak. Jarduera ekonomikoaren neurketa. Estatu eta ekonomia. Gaur egungo ekonomiaren tendentziak, arazoak eta erronkak.

**Analisi Soziologikoaren Oinarriak**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Errealitate sozialaren azterketan erabiltzen ditugun oinarrizko kontzeptuak zehaztasunez ezagutzea, mugatzea eta definitzea. Errealitate sozialaren produkzioaz, erreproduzioaz eta eraldaketaz aritzeko erabiltzen ditugun kontzeptu teoriko nagusiak erabiltzea eta egoera zehatzetara aplikatzea, bai maila estrukturalan zein eguneroko bizitzan.

**Edukiak:** Soziologiaren eraketa zientzia gisa. Soziologiaren aztergaia: egitate eta ekintza soziala. Elkarrekintza eta hartu-eman sozialak. Rol sozialak eta kontrol soziala. Elkartze sozialak: kolektiboak, erakundeak, instituzioak. Boterea eta autoritatea: klasea, arraza, adina, generoa. Aldaketa eta gatazka sozialak.

**XX. Mendeko Historia Politikoa eta Soziala**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** XX. mendea definitu zuten prozesu sozial eta politikoa nagusiak ezagutzea.

**Edukiak:** Inperialismoaren garaia. Bi Mundu Gerren arteko Mundua. Lehen Mundu Gerra eta Parisko Bake Hitzarmenak. Errusiako Iraultza eta Stalinen Sobietar Batasuna. Nazioen Elkartea eta demokraziak mundu gerren artean. Faxismoen gorakada eta 30eko hamarkadako nazioarteko krisia. Bigarren Mundu Gerra eta faxismoen desagigoa. Gerra Hotzeko mundu bipolarra. Europa batzeko prozesua. Bloke komunista. Amerikak II. Mundu Gerraren bukaeraz geroztik. Hirugarren Munduaren deskolonizazioa eta Ekialde Hurbileko liskarra. 70eko hamarkadako krisi ekonomikoa. Bloke komunistaren kiebrea eta Europar Batasunaren handitzea. Gaur egungo mundua. Sortzen ari diren potentziak.

**Analisi Politikoen Oinarriak**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Gertakari politikoen eragile, estruktura eta testuinguruaren arteko harremanak aztertzea. Gizarte tradizionala, modernoa eta gaur egunekoaren arteko ezberdintasunak ulertzea. Estruktura politikoen logika autonomoa ulertzea, baita estrukturan kanpoko indarrek zein eragileek lortutako aldaketak aztertzea ere.

**Edukiak:** Kultura politikoen aztertzeko eredua: errealitate sozialaren mailak. Kontzientzia: Gizarte modernoa eta postmodernoren baloreak; Identitateak; Ideologiak. Estruktura: Tradizioa, modernitatea eta postmodernitatea. Aktoreak: Gizarte zibila; Alderdiak eta interes taldeak; Gizarte mugimenduak eta eraldaketa soziala. Emaitzak: Ekintza kolektiboa eta politika publikoak.

**Gizarte Erakunde eta Prozesuak**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Gizarte errealitate instituzionalizatuaren aldaketa eta jarraitutasun prozesuak azaltzen dituzten faktore sozial, politikoa eta ekonomikoak identifikatzea, definitzea eta analizatzea. Arazo sozial esanguratsuenen oinarrizko osagaiak identifikatzea eta definitzea. Gizarte errealitateari buruzko perspektiba soziologikoen logika ulertzea eta aplikatzea.

**Edukiak:** Instituzionalizazioaren unea. Boterea, legitimazioa, gatazka eta aldaketa. Kulturatik kulturetara: Aniztasuna, multikulturalismoa eta nortasuna; tradizioa, erlijioa eta sekularizazioa. Desinstituzionalizazioa. Bizitza pribatuaren eraldaketa. Enplegu arau sozialaren eraldaketak. Nazioa eta Estatu globalizazioan.

**Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Ikerketa prozesua eta bere faseak ezagutzea eta horietan sakontzea. Gizarte errealitatearen ezagutzari buruzko ikuspuntu orokorra hartzea, baita gizarte ikerketan agertzen diren paradigma metodologikoei buruzko azalpen orokorra ere.

**Edukiak:** Zientzia, metodo zientifikoa, ikerketa mailak eta ikerketa zientifiko enpirikoa. Gizarte ikerketaren formulazio teorikoa. Teoriaren eraikuntza. Ikerketa prozesuaren pausoak. Ikerketaren dimentsio praktikoa eta ikerketarako baldintzak.

**Gizarte Psikologia**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Elkarrekintzaren prozesu psikosozialak bereiztea eta koerlazioztatzea. Horien eragina analizatzea eta balioestea bai pertsonaren eraikuntzan bai gizarte markoen eraikuntzan. Pertsonaren, taldeen, antolakundearen eta erakunde sozialen oinarri psikosozialak aztertzea eta baloratzea.

**Edukiak:** Identitatea (*self-a*). Jarrerak eta beste kontzeptu disposizional zenbait. Eragin sozialaren psikologia. Taldearen psikologia eta identitate sozialak.

**Nazioarteko Harremanak**

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak

**Helburuak:** Nazioarteko Harremanak ikasketari sarrera orokorra egitea. Gaur egungo nazioarteko gizartearen genesia eta egungo egoera aztertzea eta baloratzea. Gizateriak XXI. mendean maila globalean aurre egin behar dizkion prozesu, arazo eta erronka nagusiak antzematea.

**Edukiak:** Nazioarteko Harremanen sarrera teoriko-kontzeptuala. Nazioarteko Gizartearen Aktoreak. Nazioarteko Sistemaren Egitura. Nazioarteko Gizartearen oinarrizko prozesuak. Gizateriak Aro Globalean dituen erronka nagusiak.



**Gobernua eta Administrazio Publikoa**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Zehaztasunez gobernu eta administrazio aktoreen egitura inguruko kontzeptuak kudeatu, eta, oro har, politika eta administrazio arteko harremanak bereiztea, Euskal Erkidegoko eta Espainiako kasuei arreta bereizita eskainiz. Politikaren eta Administrazio Publikoaren eremuen lotura estuaz jabetzea.

**Edukiak:** Administrazio publikoa eta Administrazio Zientzia. Administrazioa sistema politikoaren barne. Egungo Administrazio publikoaren antolaketa eta kudeaketa. Administrazio Publikoaren egitura eta funtzioak. Giza baliabideen eta aurrekontuaren egitura eta kudeaketa. Gizarte aldakorrean gobernu eta administrazioa. Estatu gobernu eta administrazioa. Erkidegoetako gobernu eta administrazioa. Udal eta Foru Gobernu eta administrazioa. Europar Batasuna.

**Pentsamendu Politikoaren Historia**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Aro moderno eta garaikideetan botere politikoaren auziarekin arduratu diren eta eragin handikoak izan diren pentsalarien ideia nagusiak jorratzea. Filosofia politikoaren hausnarketa-esparruan oinarrituta, ikuspuntu normatiboa eta abstraktua garatzea. Gure egunetako ildo ideologiko nagusien ezaugarri aipagarrienak ulertzea.

**Edukiak:** Teoria politikoaren historiari buruzko ohar metodologiko zenbait. Greziar aitzindariak. Morala eta politikaren arteko lehia: Makiavelo. Absolutismoa eta kontraktualismoa: Thomas Hobbes. Liberalismoaren sorrera: John Locke. Jean-Jacques Rousseau, Frantziar Iraultza eta erantzun kontserbadorea: Edmund Burke. Liberalismoaren ildoan: John Stuart Mill. Pentsamendu iraultzaileak: Karl Marx eta anarkismoa. Totalitarismoak eta nazionalsozialismoa.

**Gizarte Ikerketa Kalitatiboa**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak; 7 h Ordenagailuko Praktihak

**Helburuak:** Gizarte ikerketa kalitatiboaren funtsezko ezaugarriak ezagutzea. Gizarte ikerketa kalitatiboaren proiektua sortzen trebatzea. Informazio bilketarako teknika egokienak aukeratzen eta prestatzen saiatzea.

**Edukiak:** Gizarte ikerketa kalitatiboaren instituzionalizazio prozesua: mailak eta ikuspuntuak. Gizarte ikerketa kalitatiborako prozesuaren uneak. Testuak/diskurtsoak ekoizten dituzten teknikak: Elkarrizketa irekia; Eztatibada taldea; Objektibazio kalitatiboko beste modalitate empiriko batzuk. Ikerketarako txostena.

**Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa: Inkesta eta Bigarren Mailako Datuak**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 31 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak; 14 h Ordenagailuko Praktihak

**Helburuak:** Izaera kuantitatiboko ikerketak burutu ahal izateko oinarritzko lanabesak ezagutzea, bai iturri sekundarioen bitartez bai iturri primarioen bitartez. Gizarte Ikerketa prozesuaren diseinuari dagozkion zereginak ikastea, hala nola, adierazleen eraikuntza eta laginen hautaketa. Galde-sorta edo datu sekundarioen bitartez burututako ikerketen plangintza, diseinua eta jarduna aztertzea.

**Edukiak:** Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa. Bigarren mailako datuen iturriak. Datu primarioak eskuratzeko. Laginketa diseinua: tamaina eta lagin-unitateen hautaketa. Galdesorta. Gizarte ikerketa Kuantitatiborako bestelako teknikak. Gizarte ikerketa Kuantitatiboaren txostena eta ikerketaren ebaluazioa.

**Ordezkaritza eta Alderdi Politikoak**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Alderdiei buruzko oinarritzko ezagupenak jasotzea. Hauteskunde-prozesuak zuzentzen dituzten arauak jabetzea eta hauteskunde-sistemek ordezkaritza sortzerakoan dituzten ondorio politikoak ebaluatzen trebatzea.

**Edukiak:** Ordezkaritza politikoa eta ordezkatze-gobernua. Ordezkaritzaren erakundetzea: Ordezkaritzaren egiturak. Hauteskunde-sistema: osagaiak. Hauteskunde-sistemak: motak eta eragin politikoak. Alderdi politikoak. Alderdi-sistemak.

**Portaera Politikoa**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Balio politikoaren eta jarrera politikoaren sistemak portaera politikoaren aldagai aske gisa ulertzea. Gizarte garaikideetako parte hartze politiko erak identifikatzea. Portaera politikoak azaltzen dituzten aldagaiak ulertzea.

**Edukiak:** Portaera politikoa: oinarriak eta eztabaida nagusiak. Hauteskunde-portaera. Portaera eta ekintza. Portaera politikoaren formak: protesta, indarkeria, terrorismoa. Portaera politikoa eta ziberpolitika.

**Konstituzio Zuzenbidea**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Estatuaren kontzeptu juridikoa analizatzea, zuzenbidearen produkzioa (zuzenbidearen iturriak), Estatuaren definizioa eratzailaren aukeran (Estatu forma) eta boterearen antolamendua eta kontrola (gobernu forma eta kontrol juridikoa).

**Edukiak:** Estatuaren jatorria, elementuak, izaera eta eraikuntza juridikoa. Zuzenbidearen iturriak. Konstituzioa. Legea. Errege dekretua eta legegintza eskuordetza. Erregelamendu ahalmena. Estatu forma. Estatu soziala. Estatu demokratikoa. Zuzenbide estatua. Gobernu forma antolakuntza konstituzionala. Monarkia parlamentarioa. Estatuko buruzagitza. Parlamentua. Gobernu eta administrazioa. Kontrol juridikoa Konstituzio Auzitegia. Botere judiziala.

**Datuen Kudeaketa eta Anlisi Estatistikoa I**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak; 14 h Ordenagailuko Praktihak

**Helburuak:** Fenomeno politiko eta sozialak ikertzeko modu empirikora lehen hurbilpen bat egitea. Estatistikari loturiko tresnen baliagarritasuna ulertzea.

**Edukiak:** Definizioa, tresnak eta datu baseak, Aldagaiak: definizioa eta datu diagramak. Aldagai kalitatiboak. Aldagai kuantitatiboak. Estatistika inferentziala.

**Teoria Politiko Garaikidea**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Eztatibada teoriko-politiko garaikideak elikatzen dituzten oinarritzko kontzeptuak ikastea. Garai ezberdinetako eztabai teoriko nagusien protagonista izan diren egile garrantzitsuak lantzea.

**Edukiak:** Zer da teoria politikoa? Boterearen kontzeptua eta teoriak. Legalitatea, legitimitatea eta betebeharrak. Teoria politikoaren nolakotasuna. Demokrazia kontzeptuak. Nazionalismoa, Lurralde, Burujabetza, Federalismoa, Sezesioa, Globalizazioa. Justiziaren kontzeptua. Teoria politiko Feminista. Teoria politiko Kritikoa.

**Komunikazioaren Teoriak**

Nahitaezkoa. 6 kreditu

Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktihak

**Helburuak:** Komunikabideen Sistemaren eta Iritzi Publikoaren arteko harremanak analizatzea, gai garrantzitsu batzuen inguruan. Gaiari buruzko ikerketa zein komunikazio teoria nagusiak baloratu, era kritikoa.

**Edukiak:** Komunikazioari buruzko pentsamendu teorikoa. Informazioaren gizartea. Komunikazioa eta kultura. Iritzi publikoa.





**Politika Publikoen Analisia***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Politika publikoen prozesua ezagutzea eta aztertzea, bere izaera zirkularra, irekia eta faktore askoren eragin menpekoa identifikatzearen. Politika publikoen alor eta dominen artean bereiztea. Inplikaturiko maila desberdinetako eragile desberdinak identifikatzea, baita politika publiko horretarako euren elkar harremanak ere.

**Edukiak:** Politika publikoak. Arazoen definizioa politika publikoetarako hastapena bezala. Inplikaturiko eragileen identifikazioa. Politika publikoen agendak eta erabakiak hartzea. Ekintza-planen osaketa eta buruketa. Politika publikoen inplementazioa eta kudeaketa. Politika publikoen ebaluazioa. Politika publikoen egokitzapenerako erronkak.

**Administrazio Zuzenbidea***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Herri Administrazioa zer den, nola funtzionatzen duen eta herritarrekin nolako harremanak dituen aztertzea.

**Edukiak:** Herri-Administrazioak. Administrazio-antolakuntza. Administrazio-zuzenbidearen iturriak. Herri-Administrazioaren jarduera. Administrazio-prozedura: Esanahi orokorra; Administrazio-prozeduraren egitura; Adminitrazio-prozeduraren amaiera eta administrazio-isiltasuna. Administrazio-egintzaren eraginkortasuna.

**Espainiako eta Euskadiko Sistema Politikoa***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Espainia eta Euskadiko errealitate politiko-instituzionalaren funtzionamendua ezagutzea. Zientzia Politikoa oinarritzko kontzeptu eta tresna analitikoetan sakontzea, hauek Espainia eta Euskadiko kasuei aplikatuz.

**Edukiak:** Sistema politikoa: Gobernu formak, kontzeptuak eta teoriak. Espainiako eta Euskadiko sistema politikoen ondare historikoa. Trantsizioa eta prozesu konstituziogilea. Autonomien estatu lurralde antolaketa. Euskal sistema politikoa.

**Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa II***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktikak*

**Helburuak:** Tresna estatistikoen erabilera trerbatzea, bi edo aldagai gehiagoren arteko erlazioei buruzko egoerak identifikatu eta aztertu ahal izateko. Lagin bi edo gehiagoren arteko aldean hipotesi proben ebazpena aurkeztea.

**Edukiak:** Estatistikoen arteko alderaketa probak. Aldagai kategorizatuen arteko erlazio ereduak. Aldagai tartekatuen arteko erlazio ereduak: Erlazio linealaren ereduak.

**Europako Integrazioa***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Europako Batasunaren oinarritzko ezaugarriak sistema politiko berezi bezala eta Europako integrazio prozesuaren gaur egungo dinamikak, erronkak eta mugak nagusiak era kritikoa aztertzea.

**Edukiak:** Europaren inguruko ideien bilakaera historikoa. Gaur egungo integrazio prozesuak eta integrazio teoriak. Europar eraikuntzaren prozesu historikoa. Europar Batasunaren erakunde sistema. Antolamendu juridikoa. Finantzaketa eta aurrekontuen onarpena. Ekonomia eta Moneta Batasuna. Europar Batasunaren politikak.

**Datuen Aldagai Anitzeko Analisia***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktika*

**Helburuak:** Aldagai askoren erlazio ereduak identifikatu eta ebazteko tresnak ezagutzea. Datu mota eta teknika egokien erabilgarritasuna irizpide, teknikak egoki bereiztea eta aplikatzen trerbatzea.

**Edukiak:** Azterketa aldagaianitza. Erregresio anizkoitza. Bariantzaren faktore Azterketa. Osagai Nagusizko Faktore-azterketa (ONA). Korrespondentzien Faktore-azterketa (KBA/ KAA). Quick Cluster: mordoien sailkapen ez-hierarkikoa (K-MEANS).

**Proiektuak Diseinatu eta Egitea***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika*

**Helburuak:** Politika eta Gizarte Zientzien esparruan proiektuak diseinatzeko eta egiteko funtsezko ezaguerak eta oinarriak eskuratzea. Txosten eta proiektu motak egitean metodologiak ebaluatzea.

**Edukiak:** Estrategia praktikoak proiektu profesionalak prestatzeko. Diseinuen muga metodologikoak. Zenbait diseinu espezifikoa eremu espezifikotarako. Ikerketa txostenak: idazketa eta aurkezpena.

**Euskal Gobernantza Ekonomikoa: Finantziarioa eta Aurrekontuak***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Euskal ekonomiaren oinarritzko eragileak eta egitura aztertzea. Erakunde publikoen aurrekontu-politikak ezagutzea eta Kontzertu ekonomikoaren zerga-sistema aztertzea.

**Edukiak:** Euskal egitura sozio-ekonomikoa eta globalizazioa. EA Eren Kontzertu ekonomikoa eta Nafarroaren Konbenio ekonomikoa. Zerga-politikak. Aurrekontu publikoak.

**Euskal Gobernantza***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Herri Administrazioen antolaketa eta jarduera dinamikoa aztertzea. Politika publikoetako aktore instituzional nagusien arteko harremanak ezagutzea.

**Edukiak:** Administrazio publikoen tipologia eta osagaiak. EA Ego egitura instituzionala. Administrazio funtzionala EA En. Erakundearteko harremanak EA En. Ko-gobernua.

**Euskal Erakundeak eta Euskal Alderdi Politikoa***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Ordezkaritza erakunde nagusien funtzioak, antolaketa eta eskuduntzen banaketa ezagutzea. Erakundeen erabakitze prozesuaren dinamikak aztertzea.

**Edukiak:** Ordezkaritza erakunde funtzioak eta organoak. Prozesu legegilea. Legebiltzarkideak, batzarkideak, zinegotziak. Hauteskundeak. Errendimendu legegilearen azterketa.

**Analisi Politikoa eta Hauteskunde Prospektiba (1A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 14 h Ordenagailuko Praktikak*

**Helburuak:** Analisi politologiko aplikatuaren analisiaren tresnekin trerbatzea, problemaren planteamendutik diagnostiko edo proposamen txosten bat prestatu arte.

**Edukiak:** Hauteskundeak Euskadin eta Espainian. Politika eta hauteskunde arloko azterketa motak. Hauteskunde portaeraren patroiak. Hauteskundeetan parte hartzea.

**Komunikazio Politikoa (1A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Politikaren eta komunikazioaren arteko erlazioak identifikatzea. Hedabideek politikan duten zeregina analizatzea. Komunikazio politikoaren estrategiak interpretatzea.

**Edukiak:** Komunikazio politikoaren aktoreak eta kanalak. Hauteskundeetako komunikazio politikoa. Sistema politikoak eta komunikazio politikoaren ereduak. Hizkuntza politikoa.

**Sektore Publikoaren Ekonomia (2A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Sektore publikoaren zeregina eta ekonomian dituen ondorioak ikuspegi kritikoa batetik analizatzea. Estatuak jarduera ekonomikoan eragiteko dituen tresnak ezagutzea.

**Edukiak:** Sektore publikoa ekonomian. Estatuak ekonomian duen esku hartzearen bilakaera. Sektore publiko espainiarren mugaketa eta dimentsioa. Aurrekontu orokorrak.

**Giza Baliabideen Kudeaketa (2A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Diziplinaren bilakaera historikoaren ezagutza eta errealitatean duen islan sakontzea. Giza faktoreak erakundeetan duen garrantzia ulertzea.

**Edukiak:** Gizarte modernoa, berrikuntza eta giza baliabideen kudeaketa. Giza baliabideen kudeaketa sektore publikoan. Giza baliabideen analisia eta plangintza. Etika publikoa.

**Nazioarteko Antolakuntza (3A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Nazioarteko antolakuntzak gizartearen duen garrantzia aztertzea. Prozesu politikoa diplomazia aldeaniztunean aztertzea. Gobernagarritasun globala aztertzea.

**Edukiak:** Nazioarteko gizarte eta antolakuntza. Nazioarteko gobernu erakundeak. Nazioarteko erregimenak. Gobernuak kanpoko erakundeak eta estatus haraindiko presio taldeak.

**Gaur Egungo Nazioarteko Politika (3A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Oraintsuko historia eta nazioarteko gizarte garaikidearen egungo egoera aztertzea. XXI. mendeko prozesu, arazo eta erronka garrantzitsuenak baloratzea.

**Edukiak:** Gerra Hotza Europan. Distentsioa Ekialdearen eta Mendebaldearen artean. Gerraosteko nazioarteko sistemaren porrota. Nazioarteko sistema berri bat?

**Euskararen Arauak eta Erabilerak (euskarako taldea)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak*

**Helburuak:** Soziologia eta Politika Zientzien arloan euskarak dituen erronkez jabetzea.

**Edukiak:** Hizkuntza komunikazio-prozesuan. Soziologiako eta Politikako testu-generoak. Kontsulta-tresnak.

**Globalizazioa eta Munduko Sistema Ekonomikoa***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Ingurune politikoaren fenomenoak ikusteko ezaguera lortzea eta kontzeptu, teoria eta ikuspegi metodologikoen esanahi eta egokitasuna ulertzea. Jarrera kritikoa garatuz eta zorroztasuna erabiliz, arazo politiko eta gizartearen beharrei buruzko informazioa analizatzea.

**Edukiak:** Munduko ekonomiaren bilakaera. Nazioarteko ekonomi erakundeak. Globalizazio ekonomikoa. Finantza-globalizazioa, krisia eta austeritatea. Munduko ekonomiaren beste erronkak.

**Identitate eta Ideologia Politikoak***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** "Ideologia politikoak" kontzeptuaren izaera kritikoa jabetzea. Tradizio ideologiko klasiko eta garaikideak jorratzen dituzten gaiak ezagutzea. Mugimendu politiko eta sozial garaikideetan ideologia politikoek duten eragina ulertzea.

**Edukiak:** Identitate politikoak eta ideologiaren eraikuntza. Eskumaren ideologiak. Ezkerraren ideologiak. Arrazismoa, Faxismoa eta indarkeriaren ideologiak. Identitate alternatiboak eta gizarte mugimendu berriak. Erlijioa eta politika.

**Antolakuntza, Kudeaketa eta Erabaki Publikoa***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Gestio eredu desberdinei dagozkien atxikimendu ideologiko ea politikoak interpretatzea. Politika publiko prozesuetan parte hartzen duten agenteen identifikazioa egitea. Botere publikoek ebaluaketaz ulertzen dutena hautematea.

**Edukiak:** Antolakuntzaren teoriaren fokatzek. Administrazio publikoak eta antolakuntzaren teoria. Antolakuntza administratiboa eta berrikuntza. Administrazioa eta erabaki hartzea. Erabaki hartze prozesuetan parte hartzeko mekanismoak. Gestio Publiko Berria. Gestio publikorako tresnak.

**Politika Konparatua***Nahitaezkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Politika Zientzietako metodologia konparatuaren ikuspegian sakontzea, tresna analitikoak erabiliz: sistema politikoaren funtzionamendu praktikoa, agenteak eta dinamikak deskribatu eta esplikatzeko metodologia konparatuarekin.

**Edukiak:** Politika konparatua eta metodo konparatua. Sistema politikoak prozesu historikoaren produktu gisa. Gobernu forma parlamentarioak, presidentzialistak eta erdi-presidentzialistak. Lurralde antolaketa ereduak konparaturik. Kultura eta azpi-kultura politikoak. Alderdi-sistema konparatuak.

**Komunikazioa Euskaraz: Gizarte Zientziak (euskarako taldea)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Euskaraz lan egin ahal izateko ezinbestekoa diren gaitze linguistikoan sakontzea. Zenbait testu-genero lantzea.

**Edukiak:** Komunikazioa Soziologian eta Politika Zientzietan. Dibulgazioa Soziologian eta Politika Zientzietan. Ikerketa.

**Euskal Gizartearen Kapitala: Kultura, Elementu Eragingarriak eta Diskurtsoak***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Aholku politikoko tresnak eta estrategiak diseinatzea, eta horretarako inguruko izaera ezagutzeko aurrera eraman beharreko teknikak.

**Edukiak:** Kapital desberdinak. Kapital Soziala eta demokrazia: Gainbehera? Kapital Soziala Euskadin ikertzen. Kapital Soziala euskal gizartean.

**Eremu Gatatzatsuen eta Ez-arautuen Elkarreragina Euskal Politikan***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Politikotasunaren erroak ulertzeko tresna teoriko analitikoak ezagutu eta erabiltzen ikastea.

**Edukiak:** Zertaz ari gara? Zergatik, zertarako? Nola aztertu? Nola eragin? Nola arautu? Nola bideratu?

**Euskal Ekonomia Mundu Globalizatuan***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Ikuspegi kritikoa oinarrituz ekonomi globalizazioaren ezaugarri nagusiak, eragileak eta ondorioak ezagutu eta elkar erlazionatzea.

**Edukiak:** Ekonomi globalizazioa. Euskal Herriko ekonomia XIX. mendetik XXI. mendera. Euskal Herriko ekonomiaren egitura. Ekonomia soziala eta solidarioa eta globalizazioa.

**Politika Publiko Sektorialak***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Euskal politikagintza sareen azterketarako tresna enpirikoak ezagutzea. Politikagintzarako eredu berrien ezagutzarako tresneria lantzea.

**Edukiak:** Arloko politika publikoak. Berdintasun politikak. Gizarte politikak. Ingurumen politikak.

**Ekintza Politikoa eta Interes Taldeak (1A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Aztertzea hirugarren sektoreko erakundeek ekintza politikoa eta erabaki publikoetan duen eragina, beren estrategiak eta aktore politikoek ekintza kolektiboari lotutako teoriak.

**Edukiak:** Aktore kolektiboek ekintza kolektiboari eta ekintza politikoari lotutako teoriak. Interes taldeak, interes publikoko taldeak, patrioiak/sindikatuak, gizarte mugimenduak.

**Aldaketa eta Gatatzka Politikoa (1A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 7 h Mintegia; 7 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Aldaketa eta gatatzka politiko handiak zergatik eta zer erregularatasunen bidez garatzen diren ulertzea. Kasuen azterketa horien bidez aldaketaren eta gatatzkaren arteko erlazioak ezartzen ikastea.

**Edukiak:** Ibiltzen hasteko piezak: Aldeen batura osoa baino gehiago da. Análisi esparrua. Giro naturala eta kontzientziarena. Egiturak. Aktoreak. Ekintza kolektiboa.

**Marketin Politikoa (1A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak; 14 h Ordenagailuko Praktihak*

**Helburuak:** Merkatu azterketen metodologia erabiltzea errealtate ekonomiko, sozial eta politikoa eta erakunde eta aktore politikoek ekintza politikoan duen inpaktua ebaluatzeko.

**Edukiak:** Merkatu politikoa. Lerrokatze politikoaren oinarri sozialak. Espazio publikoa masa gizarteetan. Marketin politikoaren kontzeptuak eta elementuak. Kanpaina politikoak.

**Esku-hartzeko Teknikak Administrazioan (2A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Administrazioaren esku-hartzeko erabakiak baldintzatzen dituen marko juridiko orokorra aztertu eta ulertzea.

**Edukiak:** Administrazioaren negozio jardura. Mugatze, antolamendu edo kontrol jardura. Zehapen jardura. Esku hartze administratiboa jabetzan eta desjabetzean. Zerbitzu publikoaren jardura. Sustapen jardura eta laguntza publikoak.

**Aldaketa eta Berrikuntza Herri Administrazioetan (2A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Modernizazio, erreforma eta berrikuntza kontzeptuak egungo mendebaldeko administrazio publikoetan parekatzea. Egungo fenomeno administratiboak azaltzeko erabiltzen den egungo terminologia ulertzea.

**Edukiak:** Modernizaziotik berrikuntzara: Bilakaera eta ezaugarriak. Gobernu elektronikoa eta prozesuan duen pisua. Kontzeptu berriak errealtate berrietarako. Sare sozialen fenomeno eta haien zeharkakotasun bokazioa.

**Politika eta Programa Publikoen Ebaluazioa (2A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Programa, politika eta zerbitzu publikoen teoria eta praktika ulertzea, politika publikoen analisiaren esparru orokorrean ulertuta.

**Edukiak:** Ebaluazioa politika publikoen azterketan eta zikloan. Gobernu ekintzaren ebaluazioa. Ebaluazioen tipologia. Metodologia.

**Gatazken Análisi eta Ebazpena (3A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Nazioarteko gizarte garaikideko gatazka aztertzea, barneko eta nazioarteko gatazken arteko elkarrekintza eta horiek bide baketsuen bitartez ebazteko edo eraldatzeko espektatibak azpimarratuko dituen ikuspegitik.

**Edukiak:** Askotariko hurbilketa teorikoak gatazken zientziara. Diziplina anitzeko oinarri teorikoak. Barneko gatazka eta nazioarteko gatazka. Diagnostikotik preskripziora. Desadostasunen konponbidetik segurtasun kolektibora.

**Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak (3A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Arazo globalak analizatzea. Arazo globalak perspektiba funtzionalean aztertzea. Arazo globalak perspektiba normatiboan aztertzea.

**Edukiak:** Arazo globalen análisis: sarrera. Kontzeptu zehaztasunak arazo globalen aurrean. Arazo globaletatik ondasun publiko globaletara. Egiturak, interesak eta balioak arazo globalen azterketan.

**Diplomazia eta Kanpo Politika (3A)***Hautazkoa. 6 kreditu**Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktihak*

**Helburuak:** Garrantzi eta konplexutasun handiko politika publiko bat ezagutzea. Estatuek eta estatuen mendeko eta estatuz kanpoko beste erakunde batzuek nazioarteko esparruan beren interesak defendatzeko dituzten tresnak ezagutzea.

**Edukiak:** Kanpo politikaren kontzeptua eta mugaketa. Erabaki organoak eta kanpo politika egitea. Erabaki ereduak kanpo politikan. Kanpo politikaren faktore baldintzatzaileak. Kanpo politika gauzatzea. Kanpo politika eta barne politika.

**GRADU AMAIERAKO LANA****12 kreditu**

## PRAKTIKAK ENPRESETAN

Hezkuntzarako lankidetzak praktikek aukera ematen diete ikasleei **enpresa eta erakunde publiko zein pribatuen errealitate** hurbiltzeko eta, hartara, langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak. Horrela, beren prestakuntza akademikoa osa dezakete eta lan esperientzia eskuratu, titulazioan ikasitakoarekin zerikusia daukaten atazak eginez.

Praktikak borondatezkoak dira, baina ia ikasle guztiek egiten dituzte, graduako **hirugarren eta laugarren mailatan**. Fakultateko irakasleen tutoretzapean egiten dira, eta haiengatik ikasleei 6 kreditu aitortzen zaizkie, hautazko irakasgaiekin egiten den bezala.

Gure praktika programetan parte hartzen duten ikasleen **gogobetetze maila altua** ikusteak animatu egiten gaitu etengabe hobetzen jarraitzea gure ikasleak laneratzeko abian dauzkagun prozesuetan.

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduako ikasleek praktikak egiteko **50 enpresa, instituzio, elkarte eta fundazio baino gehiago** dauzkate beren esku, besteak beste:

- **Euskobarometro**
- **Udalak**
- **Merkatu ikerketak egiteko enpresak**
- **Gobernuz Kanpoko Erakundeak**
- **Erakunde publikoa**
- **Etab.**

Fakultateko webgunean lauhilabeteko bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien **informazio gaurkotua** ikusgai dago: enpresa, eginkizunak, betebeharrak eta ordainsaria.

## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Graduko bigarren mailatik aurrera, ikasleek bi mugikortasun programetan parte har dezakete, egonaldiak egiteko atzerriko eta estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasten. Ikastaldiaren epea aukera dezakete: lauhileko bat edo ikasturte osoa.

Hauek dira mugikortasun programak:

1. **Erasmus+**, Europako unibertsitateetarako: Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suedia, besteak beste.
2. **UPV-AL**, Latinoamerikako unibertsitateetarako: Argentina, Brasil, Kolonbia, Mexiko, Peru, Txile, besteak beste.
3. **Beste Norakoak Programa**, AEB, Kanada eta Hego Koreako unibertsitateetara joateko.
4. **SICUE**, Estatu Espainiarreko unibertsitate nagusien arteko trukeerako.

Nazioarteko mugikortasun programetan ikasleek ingelesez, frantsesez edo alemanez ikas dezakete. Horretarako, ikasleak hizkuntza horietan gaitasuna daukala egiaztatu beharko du.

Mugikortasuna bi norabideetan da, hau da, gure ikasleak atzerriko unibertsitateetara doazen bezala bolada batez ikastera, gure Fakultateak ere urtean atzerriko 100 ikasletik gora hartzen ditu. Ez da, beraz, ezohikoa gure ikasleak atzerriko ikasle horiekin ibiltzea ikasgeletan, laborategietan eta beste espazio batzuetan.

